



Antxiñako fotografixia

U.H.P. bataillueko oñatiarrak



Etxaku 1936-1939 arteko gerrate zibilleko fotografixa asko geratu. Eta ez, seguru asko, bando batian nahiz bestian atara etziralako, beste arrazoi batzuegatik baiño: galtzailliak, errepresinuaren bilddurrez, halako agirixak apurtu edo onduegi ezkutau zittuailako; irabazliak, berriz, gerraosteko urte gozuak igaro eta gero, pasadizo hareik ahazketia gura izan eueillako-edo, batez be transiziño-garaixan. Dana dala, hainbeste denpora pasau ondoren eta berandu baiño lehen, alde bixetako argazkixak, dokumentu historiko moduan, batzeia eta argittaraketia inportantia dala uste dogu.

Gaurkuan sozialista eta errepublikanoz moldautako U.H.P. bataillueko hirugarren konpainiako soldauak dakartzuegu. Sigla horreik **Unión de Hermanos Proletarios** esan gura euen. Fotografixan agerketan diran mutil gehixenak oñatiarrak ziran. Argazkixa Ubidean hartuta dago, Araba eta Bizkaiko mugan 1937ko otsaillian, Billarrealgo batailliaren ondoren eta udabarriko Molaren ofensibiaren aurretik egon zan lasaialditxuan. Hiru-lau bat kenduta, beste guztiak hildda dagoz. Banaka batzuei, gaiñera, fotografixa atara eta aste batzuetara hasi zan zalaparta ikaragarrixan aillegau xaten heriotzia.

Ezkerretik eskumara eta numeruai jarraituaz honeitxek dittugu gudarixok:

Zutik: 1.- Felix **Iñurritegi**, *Antxelmorena*; 2.- Joxe **Biain**, *Etxezar*; 3.- Pedro **Bikuña**, *San Juan kalekua*; 4.- Antonio **Arrazola**, *Garibaiko Iturriñekua*; 5.- Gregorio **Lizarralde**, *Kapo*; Rufino **Ugarte**; 7.- Markos **Erle**, *Kale Zaharrekua*; 8.- Juanito **Aberasturi**, *Kale Zaharrekua*; 9.- Inozentzio **Aranburu**, *San Antue kalekua*; 10.- Antonio **Altzelai**, *Kasablankako Errotari-zaharrena*; 11.- Pedro **Arkauz**, *Kamamuñokua*; 12.- Joxe **Lizarralde**, *Kale Barrikua*.

Makurtuta: 13.- Jaxinto **Igartua**, *Uribarriko Sagastizabalgua*; 14.- Ebaristo **Leturiaga**, *Uribarriko Banastagingua*; 15.- Teodoro **Igartua**, *Sagastizabalgua*; Balentin **Altube**, *Madalenako Osiñagakua*; 17.- Xipri **Txintxurreta**, *Kanpiazelaiakua*; 18.- Boni **Iraola**, *Txapa*; Rafael **Madinabeitia**; 20.- Migel **Anduaga**, *Zubillagako Baketxekua*; 21.- Bravo de **Bolueta**, *bizkaitarra* [?]; 22.- Joxe **Aranburu**, *Eibartarrarena*; 23.- Jesus **García**; 24.- Leonardo **Guridi**, *Kasablankakua*; 25.- Anbrosio **Altzelai**, *Errotari-zaharrena*; 26.- Alejo **Ugarte**, *Olabarrietako Urraburukua*; 27.- Pedro **Lizarralde**, Gregorio **Kaporen** anaia; 28.- Doroteo **Kortabarria**, *San Juan kaleko Gogordonekua*, beste bataillue batekua zan; 29.- Felix **Anduaga**, *Madalenako Etxatxokua*.

Jarritta: 30.- Juan **Anduaga**, *Etxatxokua*; 31.- Emeterio **Ormazabal**, *Uribarriko Tuertokua*; 32.- Felipe **Aiastui**, *Txato*; 33.- Joxe **Aldabe**, *Oñatiko aiuntamentuko argiduna*; 34.- [?] **García**, *Naparruako Olazagutiakua*; 35.- Donato **Zabala**, *Torreazokua*; 36.- Simon **Arrue**; 37.- Euxebio **Urrutia**, *Kipuetxe*; 38.- Bixente **Bengoetxea**, *Biko*; 39.- Bixente **Odriozola**, *Merkienadendakua*; 40.- Agustín **Egaña**; 41.- Pedro **Agirrebengoa**, *Txinparta*; 42.- Felix **Palacios**, *San Pedroko Torreakua*; 43.- X. X.; 44.- Benigno **Agirre**; 45.- Anjel **Ezpeleta**, *Kale Zaharrekua*; 46.- Martzelino **Astiazaran**, *Txaketuena*; 47.- Segundo **Martínez de Iturrate**, *Milikuena*; 48.- Sebastian **Lizarralde**, *Kasablankakua*; 49.- Agustín **Lizarralde**, *Otero*, *Zubillagako Lazkanokua*; 50.- Felipe **Aberasturi**, Juanitoren anaia; 51.- Santos **Aiastui**, *San Juan kaleko Otxuanekua*; 52.- Manolo **Odriozola**, *Merkienadendakua*; 53.- Ignazio **Rodríguez**, *inprentakua*.

J. E.

Argazkixa Rikardo Txintxurretak eskuratu dosku; eta argibidiak Rikardok berak, Antonio Altzelaik, Gabino Beitiak, Karlos de los Santos eta Joxe Guridik. Eskerrik asko danoir.